



LEHEN HEZKUNTZA ETAPAN HASTEN DIREN IKASLEENTZAKO ARGIBIDEAK

Oporren bueltan etapa berri batean hasiko da zuen seme-alaba. Berton aurkituko dituzuen funtzionamendu aldaketa batzuk laburtzen dizkizuegu:



FUNTZIONAMENDU BERRIA

- *Ikasturteko lehenengo egunean Haur Hezkuntzako tutoreek lagunduko dituzte ikasleak Ikastolan sartzen. Harrera 09:00etan izango da, Ikastolako egoitza nagusiko sarrerako iturrian.*
- *Bigarren egunetik aurrera udan prestatutako Altxorraren kutxa gelara ekartzen hasiko dira, irakasleak eskatzen dienean.*
- *Lehen Hezkuntzako ikasleek ate propioa dute Ikastolara sartzeko, Kiroldegirako ranpatik abiatzen den eskaileran dagoena. Ate hau sarrera ordu guztietan 5 minutu lehenago zabaltzen da.*
- *Ikasturteko lehenengo egunetik, irailaren 8tik, ordutegi osoa izango dugu: 09:00etatik 12:55era. Lehenengo egunetan irteera errazteko, irakasleak ikasleak lagunduko dituzte kanpoko esplanadaraino.*
- *Arratsaldez hasten garenean, goizeko ordutegia 09:00etatik 12:25era eta arratsaldeko ordutegia 14:30etik 16:25era izango da. Asteazkenetan, goizeko jarduna izango dugu: 09:00etatik 12:55era.*
- *Ikasleak berandu datozenean Idazkaritzatik sartuko dira eta idazkaritzan arduratuko dira ikaslea gelaraino laguntzen. Ikastolatik lehenago ateratzeko, gurasoak idazkaritzara hurbilduko beharko dira ikaslearen bila eta irakaslea ohar baten bidez abisatu beharko dute.*
- *Oso garrantzitsua da ordutegiak puntualitateaz errespetatzea.*

MATERIALEN INGURUKO ARGIBIDEAK

- *Amantala bat (arte lanak egiteko).*
- *Estutxe bat, normala, hutsik; materiala Ikastolan banatuko dugu.*
- *Motxila bat, gurpilik gabekoa, karpeta normal bat sartzeko tamainakoa.*
- *Psikomotrizitate saioetarako, pijama eta galtzerdiak*
- *Gorputz Hezkuntza saio egunetan, arropa eroso, deportibak,aldatzeko kamiseta bat eta lehorkina.*
- *Ur botila bat*
- *Hamaiketako indibiduala; asteazken eta ostegunetan, fruta eguna.*
- *Material guztiei izena jarri behar zaio.*

JANTOKIA

ASTEAZKEN ETA GOIZEKO JARDUNEKO EGUNETAKO ORDUTEGIA

Irteera ordua 15:00etan izango da. Gogoan izan ordutegi hau 14:30era aurrera dezakezuela horretarako argitaratzen den oharra betez gero. Egun hauetan ikasleak Lehen Hezkuntzako atetik aterako dira eta ez egoitza nagusiko hall-etik.

EKARRI BEHARREKO MATERIALAK

Amantala eta aho-garbitasunerako tresneria (hortzetarako pasta, eskuila eta edalontzia). Dena Ikaslearen izenaz markatuta.

GAIXOALDIEN JAKINARAZPENA

Ikasleen gaixoaldiak jantokian jakinarazi behar dira 94 672 6737 telefonoan.